



II. ATALA TXILLARDEGIRI ESKAINITAKO LANAK

>>>

9

TXILLARDEGIREN OMENEZ

Ainhoa Beola Olaziregi

*Donostiako Udaleko Hizkuntz Normalkuntza,
Berdintasun eta Lankidetzaz zinegotzi ordezkaria*
Helbide elektronikoa: udala_euskara@donostia.org

Ohore handia da niretzat BAT Soziolinguistika aldizkariak Txillardegiren omenez kaleratu duen zenbaki honetan parte hartzea.

Txillardegik bere 80 urte emankorretan, gizarteari oro har, eta euskal gizarteari bereziki, egin dion ekarpena laburbiltzea ezinezkoa izango litzateke lerro hauetan. Sortzailea, polifazetikoa, berritzailea, aurrerakoia, beti bere garaiaz haratago bizi izan dena, kritikoa, ausarta... euskararen munduan bizi garenontzat, pertsona eta maisu eredugarria.

Gazte-gaztetatik mugimendu politiko eta kulturaletan konprometitua egon den eta dagoen pertsona izan da; euskaldun berria, frankismoko garai gogorretan euskaldundua eta euskara bere bizitzako ardatzetako bat bilakatu du, hizkuntza-normalizazioa bere kezka nagusietakoa izanik, teoria berrizale eta aberasgarriak ekarri dizkigu beti. Hizkuntzalari gisa, euskara batuaren defendatzaile sutsuenetakoa izan dugu, ahoskera, aditza eta abar luze bat izan ditu aztergai. Soziolinguistikan aditu paregabea, besteak beste, aldizkari honen lehenbiziko zuzendari izan zelarik... Bere bizitzako arlo gehienetan bezala, nobelagintzan ere aitzindaria izan zen *Leturiaren Egunkari Ezkutuan* garai haietan euskal literaturan oraindik ezagutzen ez zen pertsonaia gatazkatsua sortuz.

Esan bezala, buka ezina da Txillardegik gure gizartearen eta bizitzaren alor desberdinei egin dien ekarpena. Alabaina bere pertsona eta bere lana aztertu eta ikertu duten hainbat eta hainbat aditu izanik, ez dut uste niri dagokidanik honetaz aritzea.

Eta zer izan daiteke nik Txillardegiren omenezko ale honi eman diezaiokekena? Une honetan Donostiako Udalean dudan arduraren ikuspuntutik eta Txillardegiren euskalduntasuna eta euskaltzaletasuna miresten ditudan aldetik, gure hirian, Donostian, euskarak duen presentziaz eta euskararen normalizazioa erdiestera begira egiten direnaz aritzea erabaki dut. Gainera, gure bidelaguna, beti ikusi dut bere donostiar-tasunaz harro, edo hala irudikatu dut nik behintzat. Ez dut uste oker nabilenik bere hitzetan jartzen badut Donostiak behar duela izan Euskal Herriko hiriburu euskaldun eredu edo gidari. Hala uste dugu guk ere, Donostiak euskararen hiria izan behar duela alegia.

Donostiak baditu hizkuntzaren egoeraren eta erabileraren normalizazioan aurrera egiteko, zeregin ugari badugun arren oraindik ere, hainbat udalerrirekin eta Euskal Herriko gainerako hiriburuekin alderatuta, abiapuntu hobean kokatzen duten baldintzak. Gai honetan luzatzeko asmorik gabe, hainbat datu azpimarratu nahiko nituzke.

Atzera begiratuta, belaunaldien arteko transmisioa, garai batean galtezokotan izan bazen ere, ez da inoiz erabat eten Donostian. Era berean, *euskararen historia hurbila, neurri handi batean, Donostiari loturik dago.*

Euskal Herriko prentsan aurrenekoz azalduriko euskal testua Donostian idatzi eta argitaratu zen 1834an.

Donostian argitaratu dira lehen euskarazko aldizkariak: Euskal Esnalea, Euskal Erriaren Alde, Argia...

XIX. mendeko bertsolari bikainenetakoak, Bilintxek, euskal bertso-gintza poesigintzaraino eraman zuen. Ondoren etorri ziren Fermin Imaz, Txirrita eta beste hainbat eta hainbat.

Ondo jaso zituen Bilintxen bertsoak Jose Manterolak. Bere grina eta euskaltzaletasunak pizkunde garaia ekarri zuen Donostiara, berekin izan zituen Antonio Arzak, Serafin Baroja...

Donostian entzun zen euskara lehen aldiz eskenatoki batean. 1878an izan zen, Marcelino Soroari esker. Eta euskal munduan ezagutu den antzerki mugimendurik garrantzitsuena sortu zuten Soroak berak, Toribio Alzagak, Avelino Barriolak eta beste antzerkizale hainbatek. Euskal Iztundea.

Agustin Anabitarte, Jon Etxaide, Txillardegi bera noski, Mikel Laboa, Lurdes Iriondo, Ramon Saizarbitoria, Arantxa Urretabizkaia, Koldo Izagirre, Jose Austin Arrieta, Mariasun Landa, Joan Mari Irigoien, Inazio Mujika, Harkaitz Cano... Eta etorriko direnak...

Urteetan izandako mugimendu eta pertsonaia guztiek arrasto nabarmena utzi dute Donostiako euskal kulturaren literaturan, antzerkigintzan... Horrela, euskal kulturarekin lotutako erakunde ugari Donostian

*Txillardegi sortzailea,
polifazetiko,
berritzailea, aurrerakoia,
beti bere garaiaz haratago
bizi izan dena, kritikoa,
ausarta... euskararen
munduan bizi
garenontzat, pertsona eta
maisua eredugarria.*

dute kokapen nagusia (idazle, itzultzaile, bertsozale, argitaletxe...) eta euskararen inguruan dagoen industriaren zati garrantzitsu bat Donostian dago.

Hizkuntzak duen oinarritzko eta ezinbesteko elementura etorritz, hona hemen azken hamarkadan donostiar euskal hiztunen kopuruak izan duen bilakaera:

Donostiako hizkuntza ezagutzaren datuak (2 urtetik gorakoak)

URTEA	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak	Guztira
1996	56.702 (%32,62)	44.953 (%25,86)	72.137 (%41,50)	173.792
2001	60.415 (%34,71)	49.184 (%28,26)	64.438 (%37)	174.037
2006	71.106 (%40,35)	46.900 (%26,61)	58.201 (%33,03)	176.207

Iturria: EUSTAT

Une honetan beraz, 71.106 euskal hiztun edo elebidun dago Donostian. Era berean, kontuan izatekoa da baita ere ingurutik, Gipuzkoatik nagusiki, jasotzen duen euskaldun kopurua, Gipuzkoako hiriburu izanik, jarduera askotarako erdigune baita.

Ezagutzari dagokionean eta etorkizunera begira ere, baikor xamar senti arazteko datuak dauzkagu. 2 urtetik 24 urtera bitarteko adin tartera mugatzen bagara, %67 dira euskaldunak. Era berean, hezkuntzako D ereduak une honetan duen matrikulazio-mailak erakusten digu ondorengo belaunaldiei begira donostiarrek euskarari ematen dioten balioa. Haur Hezkuntzaren hasieran, 3 urte dituzten haurren matrikulazioari erreparatzen badiogu, hona hemen azken hamarkadako datuak:

Donostiako ikastetxeetako matrikulazio-datuak (3 urteko haurrak)

IKASTURTEA	A eredua	B eredua	D eredua	Guztira
1999-2000	166 (%10,25)	683 (%42,16)	771 (%47,6)	1620
2004-2005	141 (%8,3)	574 (%33,6)	993 (%58,1)	1708
2008-2009	150 (%8,58)	375 (%21,45)	1223 (%69,97)	1748

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza saila, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

Datu hauek guztiak positiboak eta baikorrak bai, baina, edonork honen aurrean egingo lukeen galdera ere ezinbestean egin beharra dago. Ezagutza bai, baina zer diogu erabilerari buruz? Soziolinguistika kluste-

rrak azkena emandako datuen arabera, Donostian honakoa izan da erabileraren bilakaera azken hamarkadan:

1997an: %14
2001ean: %15,8
2006an: %18,2

Eta zer egin euskararen erabilera indartzeko? Txillardegik berak Soziolinguistika matematikoari buruzko bere liburuan aipatzen dituenak ekarriko ditut gogora: erabilera areagotu daiteke anisotropia handituz, hau da, euskaldunak euskaldunekin komunikatuz (Txepetxen euskaldunen konpaktazioaren ildotik); elebidunen euskararekiko atxikimendua eta leialtasuna handituz eta elebitasun indibidualaren maila edo kopurua handituz.

Zentzu honetan, nahiz eta uste Donostiak, berez, euskararen normalizazio prozesuan aurrera egiteko beste hainbat udalerrik eta hiriburuk (hiriburuak aipatzearen arrazoa, eredu modura edo joera batzuk finkatzera begira indar handiagoa dutelako da) baino baldintza hobek badi-tuela, horrek ez du bere horretan aurrera egingo euskararen aldeko hizkuntza-politika aktibo bat bideratzen ez bada. Alde horretatik, Donostia-ko Udalak, Euskararen Udal Patronatuaren bitartez, “Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra” tresna sortu zuen duela zortzi urte eta 2011 arte ildo nagusiak finkatuta daude. Plan honi esker eginda-ko ibilbideak esperientzia eman digu gizartearen eta administrazioaren arteko elkarlanean, eta aurrera begira eman beharreko urratsak bideratzeko lagungarria izaten jarraituko duela zalantzarik ez dugu.

Gizarte esparru desberdinetako ordezkariak osatutako Euskararen Aholku Batzordea ere duela hiru urte sortu zen eta lanean da bere ekarpenak egiten.

PLANAREN HELBURU NAGUSIA ONDORENGOA DA:

Benetako elebitasuna lortzeak zera ekarri behar du: euskararen berreskurapen eta zabalkunde osoa lortzea Donostian, udal eskuduntzetan ari-tuz euskararen normalkuntza-prozesuan esku hartzen duten gainerako erakundeekin koordinazioan eta lankidetzan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin bereziki.

Helburu orokor hau hiru atal osagarritan egituratzen da:

1. Donostiarren euskalduntzea bultzatzea. Hau da, batetik, belaunaldi berrien euskalduntze praktikoa mailaka lortzea eta euskarazko kulturara osotasunean atxiki daitezen lortzea eta, bestetik, helduen artean euskararen gaitasuna hobetzea eta euskara dakitenen kopurua areagotzea.

Ez dut uste oker nabilenik bere hitzetan jartzen badut Donostiak behar duela izan Euskal Herriko hiriburu euskaldun eredu edo gidari. Hala uste dugu guk ere, Donostiak euskararen hiria izan behar duela alegia.

Euskal Herriko prentsan aurrenekoz azalduko euskal testua Donostian idatzi eta argitaratu zen 1834an.

*Donostian argitaratu dira
lehen euskarazko
aldizkariak.*

*XIX. mendeko bertsolari
bikainenetakoak,
Bilintxek, euskal
bertsogintza
poesigintzaraino eramán
zuen.*

*Donostian entzun zen
euskara lehen aldiz
eskenatoki batean.
1878an.*

*Urteetan izandako
mugimendu eta
pertsonaia guztiek
arrasto nabarmena utzi
dute Donostiako euskal
kulturan literaturan,
antzerkigintzan...*

*71.106 euskal hiztun edo
elebidun dago Donostian.*

2. Donostiako erakunde publiko eta pribatuen erabilera publiko guztietan Euskal Herriaren berenezko hizkuntza-ohituraz erabilia izan dadin lortzea eta jarduera osoa, menpeko baldintzatan izan gabe, gara dadin lortzea.

3. Donostiar bakoitzaren hizkuntza-eskubideak guztiz errespetatuak izan daitezen lortzea, era guztietako jarduera publiko, lanbidezko, kulturazko, gizartezko edo aisialdikoei dagokienez, jakinda, botere publikoek eskubide horien gauzapena babesten dutela.

EUSKARAREN EKIMEN ESTRATEGIKOAK. DONOSTIAKO PLAN OROKORRAREN IBILBIDEA

Zortzi sektore nagusi hartzen ditu planak bere baitan: Familia Harremanak; Euskararen Sustapena eta Hizkuntza Baliabideak; Hezkuntza, Ikerketa eta Gazteria; Herri Administrazioa; Hedabideak eta Kulturgintza; Lan-mundua; Kirola eta Aisialdia; Teknologia eta Telematika.

Zortzi urte hauetan ekintza eta programa ugari bideratu dira eta bulzatu dira, batzuk besteak baino arrakasta handiagoz:

- Urtero, helduen euskalduntzeari eta alfabetatzeari loturik, mila donostiarri baino gehiagori diru-laguntzak ematen dizkie Euskararen Udal Patronatuak euskara ikasteko. Era berean, euskaltegien nahiz ikasleen jarduna indartu eta saritzeko jarduera osagarriak garatzen dira. Merkatariarentzat, ostalarientzat, kirol irakasleentzat, gurasoentzat eta abar ikastaro espezifikoak antolatzen dira eta baita etorkinentzat ere. Guztiak bakoitzaren egoera, behar eta baldintzei lotuak.
- Unibertsitatearekin egindako hitzarmenen bidez, hainbat egitasmo elkarlanean garatu eta beste hainbat argitalpen diruz lagundu dira. Ikasmateriala euskaratu da, Ereduzko Prosa Gaur programa lagundu da, Donostiako hizkuntza paisaiaren azterketa sakona egiten ari da....
- Donostiako Udalak, apirilaren 15eko 86/97 Dekretuak herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak esaten duena jarraituz, bost urtez behin, administrazioan bertan Euskararen Erabilera Normalizatzeko planak onartzen ditu. Aurten, IV plangintza aldia onartu berri du, 2012ko abenduaren 31 bitartean indarrean egongo dena. Plan honen helburu orokorrak honako hauek dira:
 - Donostiako Udalak herritarrekin dituen harremanetan, ahoz zein idatziz, bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera bermatzea.
 - Euskararen ahozko erabilera areagotzea, herritarrekiko jarduna erabat bermatuz eta Udal barruko lan-harremanetan erabilera

handituz.

- Euskararen idatzizko erabilera areagotzea, sorkuntzari lehentasuna emanez.
- Langileen hizkuntza-gaitasuna handitzea.
- Irudi korporatiboan eta hizkuntza-paisaian bi hizkuntza ofizialen presentzia osotasunean bermatzea.
- Euskarazko produktu informatikoen erabilera bultzatzeko eta injinerutza linguistikoan dagoen ikerketarako ahalmena antolatu, balioztatu eta zabaltzeko, Patronatuaren www.euskaraz.net web orriaz gain, hainbat lan-tresna jarri dira udal-langileen eta herritarren esku.
- Haur eta gazteei zuzendutako ekintza ugari bideratu dira arrakasta handiz, horietako asko Donostiako ikastetxeekin elkarlanean aurrera eramandakoak:
 - Haur jaioberrien kanpaina: gutuna eta lo-kanten CDa
 - Guraso euskaldunentzako nahiz erdaldunentzako haurren hizkuntza jarretan eragiteko hitzaldiak
 - Egutegia eranskailuekin
 - Haurrak beti jolasean
 - Eskola-antzerkia
 - Euskara zine-aretoetara
 - Haurrentzako Asteburuko aisialdiko jardueren berri ematea
 - Oporretan euskaraz
 - Euskararen eguna: gazteak zinera
 - Auzoka eskola-prentsa
 - Gaztezulo aldizkariaren "Irakurritz gozatu" ekimena laguntzea
 - Ahozkotasuna eta bertsolaritza
 - Donostiako eskolarteko literatur lehiaketa Koldo Mitxelena
 - Euskarazko produktuen gida
 - Mugi kirol-hilabetekaria
 - Lagunarteko hizkerarekin jolasean
- Kultur ekintzan bideratutako esku-hartzeak eta esparru honetako erakundeekin izandako lankidetzak emaitza aberatsak eman ditu: besteak beste, Donostia Opera Prima saria, Koldo Mitxelena literatur saria, Donostia Antzerki Saria (euskarazko antzerkiarentzat bultzada handia izan da urte osoko programazioa bermatu eta indartzen zuelako eta Nazioarteko Antzerkiaren Eguneko ospakizun nagusi bilakatu da...
- Komunikabideen arloan, tokiko euskarazko komunikabideen zabalkundea bultzatzeko azpiegiturazko nahiz diru baliabideak ematen zaizkie. Irutxuloko Hitzaren aldeko apustua esaterako.
- Kirol-arloko berriak euskaraz argitaratzeko egitasmoa garatu eta arloko eragileak euskalduntzeko hainbat neurri hartu dira, besteak beste, euskarazko kirol-prestakuntza, euskara ikasteko laguntzak...

Ezagutzari dagokionean eta etorkizunera begira ere, baikor xamar senti arazteko datuak dauzkagu. 2 urtetik 24 urtera bitarteko adin tartera mugatzen bagara, %67 dira euskaldunak.

Baina zer diogu erabilerari buruz? Soziolinguistika klusterrak azkena emandako datuen arabera, Donostian honakoa izan da erabileraren bilakaera azken hamarkadan:

1997an: %14

2001ean: %15,8

2006an: %18,2

*Donostiako Udalak,
Euskararen Udal
Patronatuaren bitartez,
"Euskararen Ekimen
Estrategikoak.
Donostiako Plan
Orokorra" tresna sortu
zuen duela zortzi urte*

*Benetako elebitasuna
lortzeak zera ekarri behar
du: euskararen
berreskurapen eta
zabalkunde osoa lortzea
Donostian, udal
eskuduntzetan arituz
euskararen normalkuntza
prozesuan esku hartzen
duten gainerako
erakundeekin
koordinazioan eta
lankidetzan, Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzarekin
bereziki.*

- Arlo sozio-ekonomikoan, batez ere, merkatariari zuzendutako hainbat zerbitzu eskaintzen dira, besteak beste, errotulazioa euskalduntzeko diru-laguntzak, itzulpen- eta zuzenketa-zerbitzua, euskara ikasteko diru-laguntzak, motibazio kanpainak, www.merkatari.net webgunea, menuen bihurgailu eta itzultzaile automatikoa....

AURRERANTZEAN EMAN BEHARREKO URRATSAK

"Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra"ren lorpenak garrantzitsuak izan badira ere, oraindik bide luzea dugu egiteko eta alderdi asko dira indartu behar direnak. Esan bezala, euskararen erabilerrari ateak ireki behar zaizkio Donostiako gizarteko esparru desberdinetan eta, era berean, euskararen aldeko ekimenak eta mezuak behar bezala gizarteratzeko, komunikatzeari eta sentiberatzeari begirako jardun iraunkor bat lantzea garrantzitsua izango da. Euskararen normalizazioaren inguruan egiten diren jarduera eta ekimenak gizarteak ezagutzea beharrezkoa da jarduera horien arrakasta lortu nahi badugu. Baina informazioa eta ezagutza edukitzeaz gain, gure hiriko bi hizkuntza ofizialen arteko elkarbizitza orekatua lortzeko, hizkuntza gutxituaren alde egin behar den ahaleginak daukan garrantziaz ohartarazi egin behar da gizartea: motibazioa eta sentiberatzea lantzea ezinbestekoa da. Horrela, bada, hizkuntza-politikaren baitan sortzen diren mezuak edo bideratzen diren ekimenak behar bezala gizarteratzeko, informazio-, zabalkunde- eta kontzientziazte-estrategia gehiago beharko lirake, komunikatzeari eta sentiberatzeari lotutako jardun iraunkor bat egin beharra dago. Zentzu honetan, ahalegin berezia egin beharko litzateke elebiduna ez den komunitatea erakartzen, euskara denona dela transmititzen. Interesa eta jakinmina sorrarazi behar du euskal komunitateak erdal komunitatearengan, euskarak prestigioa lortu behar du eta hori denon lana da.

Erabilera-esparruak etengabe sortzen joan behar da. Donostian, orokorrean gainerako lekuetan bezalaxe, euskararen erabilerrak bilakaera apala darama. Are gehiago, nekezago ari da aurrera egiten esparru informaletan (familia, lagunartea, aisialdia...) esparru formaletan baino (ikasgela, jarduera ofizialak...). Beraz, ezinbestekoa da eta Administrazioaren eginbeharra, euskaldundu den pertsona orori, ikasi duten euskara hori erabiltzeko aukerak eskaintzea; alegia, erabilera-esparruak sortzea gizarteraren alor desberdinetan. Hala ere, gai honetan lehentasunak finkatzera-koan, argi eduki behar dugu, egun, eta etorkizun hurbilean are gehiago, pertsona elebidunak nagusiki gazteak direla. Eskolan euskaldundu direnak. Eta, hain zuzen ere, hori da euskararekiko duten erreferentzia nagusia: ikasgela. Premiazkoa da horrekin hautsi eta gazte hauentzako erabilera-esparruak sortzea eta alor guztietan euskarazko eskaintza indartzea.

Hori horrela izanik ere, euskalduntze-prozesuarekin jarraitu beharra dago, ezin baitugu erabilera ezagutza indartu gabe lortu. Ez dugu erabi-

lera areagotzea lortuko komunikazio-gaitasun ona duten hiztun dentsitate nahikoa lortzen ez dugun artean.

Arlo sozioekonomikoan lehenbailehen txertatzea ezinbestekoa du euskarak. Unibertsitatean ikasten ari diren gazteen datuek agerian uzten dute, gazte euskaldun asko dagoela bere goi-mailako ikasketak euskaraz egiten ari dena. Gazte horiek dira lan-munduan epe laburrean murgilduko direnak eta hizkuntza ofizial batean zein bestean lan egiteko gaitasuna dutenak. Hala ere, Euskararen Udal Patronatuak, dauzkan eskumenak eta baliabideak kontuan hartuz, bi lehentasun nagusi dauzka arlo honetan: merkataritza- eta ostalaritza-arloa eta Udalak dituen zuzenbide pribatuko enpresa edo entitate publikoak.

Etorkinen integrazioa euskararen eskutik begiratu behar da. Donostian, une honetan, etorkinak biztanleria osoaren % 3,5 dira. Euskarak integrazioarako tresna izan behar du eta hori behar bezala bideratzen jakin behar dugu.

Administrazioak eredu izan behar du. Beste gai gehienetan bezala, gizar-teari eskatzen ari zaion edozein ahaleginetan Administrazioak eredu izan behar du eta zer esanik ez hizkuntzaren normalizazio-politikan. Administrazioak aurretik joan behar du euskalduntze prozesuan eta euskararen erabileran.

Txillardegik aspaldi zioen moduan, Euskararen erreferentzialtasuna izan behar du Donostiak. Esan bezala, erreferentzialtasun hori lortzeko, dagoena aprobetxatzen jakin eta bultzada emateaz gain, bide berriak landu beharko dira. Donostia euskararen hiria izan dadin lanean jarraituko dugu.■

**EUSKARAREN EKIMEN
ESTRATEGIKOAK.
DONOSTIAKO PLAN
OROKORRAREN
IBILBIDEA**

*Zortzi sektore nagusi
hartzen ditu planak bere
baitan: Familia
Harremanak; Euskararen
Sustapena eta Hizkuntza
Baliabideak; Hezkuntza,
Ikerketa eta Gazteria;
Herri Administrazioa;
Hedabideak eta
Kulturgintza; Lan-
mundua; Kirola eta
Aisialdia; Teknologia eta
Telematika.*